

	<p>ESKUALDEKO AGENDA 21</p> <p>INGURUMEN LAN-TALDEA</p> <p>2007/11/21 Arratsaldeko 15.30-17.30</p>	
---	---	---

Eskualdeko Agenda 21eko Ingurumen lan-taldearen bilera izango dugu gaurkoan, 2007an zehar eginiko ekintzen inguruko informazioa eman, baloratu eta datorren urtera begira aurrera eraman daitezkeen ekintza konkretuak proposatuz. Beti bezala, ahal den heinean adostasuna bilatuz.

Honenbestez, lanean hasiko gara!

Honako hauek bildu gara

Manex (Goimen), Koro eta Maribel (Landarlan), Loli (Gueske), Luis Mari de Juan (Orkli), Jose Ramon (Goierri Beheko Industrialdea), Oihana (CAF), M^a Jose (Arama), Bittor (Ataun), Patxi (Beasain), Josu (Gabiria), Antton eta Olatz (Idiazabal), Patxi (Lazkao), Idoia (Ormaiztegi), Koli (Zaldibia), Xabier (Zerain) Iker Galparsoro eta Iker Azurmendi (Goieki) eta Leire, Rosa eta Zuberua (Laia).

Guztion artean talde polita osatu dugu 2008an eskualde mailan ingurumen arloan aurrera eraman behar ditugun gaien inguruan eztabaidatzeko!

Gaurkoan egingo duguna

Gaurko bilerarekin honako helburu hauek lortu nahi ditugu:

1. 2007an Ingurumen mailan Goiekik aurrera eraman dituen ekimenen inguruko **informazioa ematea**: ZER EGIN DUGU AURTEN?
2. Orain arte Ingurumen arloan egin diren ekimenak **baloratzea**: NOLA BALORATZEN DA EGIN DENA?
3. 2008an eskualde mailan aurrera eraman beharreko ingurumen **ekintza konkretuak proposatzea**: ZER EGIN GENEZAKE HEMENDIK AURRERA?

Lanari ekin diogu

1. ZER EGIN DUGU AURTEN?

Galdera honi erantzuteko, 2007an aurrera eraman diren ekimenen nondik norakoak azaldu ditu aholkularitzak. Era berean, bere garaian eskualdeko ekintza-planeari priorizatu baina martxan jarri ez diren ekintzak zein izan diren azaldu da. (Informazio gehiago "aurkezpena" izeneko dokumentuan).

2. NOLA BALORATZEN DA EGIN DENA?

Balorazio hau egiterakoan hiru ikuspuntu ezberdin landu nahi dira:

- burutu diren ekintzen balorazioa
- prozesuaren balorazio orokorra

	<p>Eskualdeko Agenda 21</p> <p>1 / 4</p>	
--	---	--

	<p>ESKUALDEKO AGENDA 21</p> <p>INGURUMEN LAN-TALDEA</p> <p>2007/11/21 Arratsaldeko 15.30-17.30</p>	
---	---	---

- ekintza hauek herritarrei komunikatzeko emaniko pausoen balorazioa

Honetarako, partehartzaile guztiei "balorazio inkesta" izeneko fitxa banatu zaie, semaforoaren koloreak erabiliz balorazioa egiteko.

EKINTZEN BALORAZIOA	Egin da? ● bai ● ez ● ez da nahikoa
MUGIKORTASUNA	
Eskualdeko mugikortasun iraunkorraren egitasmo bat burutu.	
CAF-ekin dagoen esperientzia langile asko dituzten gainerantzeko enpresetara zabaldu	
BALIABIDE ETA ONDARE NATURALAREN KUDEAKETA	
Nekazal inguruan nekazal garapen iraunkor batentzat estrategia diseinatu, bere balio ekologikoetan erabilera ez iraunkorrenzat ordezkoa bilatuz.	
Osasungarriak eta ingurumenarekin errespetua duten elikagaien kontsumoa sustatu.	
Interesa duten guneak eta elementuak babestea bultzatu, hirigintzaren ikuspegitik antolatu eta urbanizatu ezin diren lurzoruetan jarduerak eta erabilerak kontrolatu. Urbanizatu ezin diren lurzoruen plangintza-irudiak aztertu.	
Txango eta pasealeku ibilbideak informazio didaktikoz seinalizatu	
LURRALDE-ESKUALDE ANTOLAMENDUA	
Planteamendu irudiak aztertu lurzoru ez-urbanizagarriarentzat	
"Goierri Lantzen" bat sortzeko aukera aztertu lurralde baliabideen kudeaketarako eskualde estrategia bat laguntzeko.	
HONDAKINAK	
Ahalik eta hondakin gutxien sortzeko eta hondakinak birziklatzeko sentsibilizazio kanpainak egitea.	
PYMEtan eta industriadetan hondakinak zuzen kudeatzeko sentsibilizazio-kanpainak	
HERRITARREN PARTEHARTZE ETA INGURUMEN HEZKUNTZA	
bitzu bat sortu, eskualde mailan izan litekeena	
Udalerrien eta eskualdearen iraunkortasunari buruzko eboluzioa argitaratu eta hedatu, irankortasunereko adierazle sistemaren bidez.	

Denon fitxak bilduta honako ondorio nagusi hauetara iritsi gara :

- Prozesuaren balorazio orokorra **bajua** izan da
- Ondoen baloraturiko ekintzak **hondakinekin** loturikoak izan dira
- Egiten diren ekintzak **ez dira modu egokian komunikatzen**: zenbait ekintza burutu badira ere, herritarrengana ez da informazio hori iritsi. **Komunikazio bide berriak** bilatu behar dira.
- Lan-talde honek eta prozesuak **dinamikoagoa** izan behar du: maiztasun handiagoz egin behar dira bilerak.

	<p>ESKUALDEKO AGENDA 21</p> <p>INGURUMEN LAN-TALDEA</p> <p>2007/11/21 Arratsaldeko 15.30-17.30</p>	
---	---	---

3. ZER EGIN GENEZAKE HEMENDIK AURRERA?

2008an zer egin erabakitzeko, lehenengo guztion artean ildo edo gai nagusienak aukeratu ditugu, honetarako gometxak erabiliz:

PROPOSATUTAKO GAIAK	AUKERATUTAKO GAIAK
1. Ura	●
2. Energia	
3. Mugikortasuna	●
4. Hondakinak	
5. Natur baliabideak eta lurralde antolamendua	●
6. Partehartzea	●

Gaiak aukeratuta, lau taldetan banatu gara, talde bakoitzean gai bat landu delarik. Talde bakoitzak 2008rako ekintza konkretuak proposatu ditu. Hona hemen taldekako lan honetatik jasotakoa:

MUGIKORTASUNA
<ol style="list-style-type: none"> 1. Eskola garraioa gutxitu, optimizatu, ikastetxe ezberdinen arteko akordioa lortuz. 2. Kotxe konpartituak bultzatu. 3. Poligono industrialetan adostadun batera iritsi ordutegien inguruan eta ondoren garraio publikoa jarri. Hau lortzeko eragile guztien oreka (enpresa, sindikatu, udala, etab.) lortu. Fiskalizazioa edo penalizazioa erabili. 4. Lurraldebus: puntualitatea eta ordutegiak errespetatu.

PARTEHARTZEA
<ol style="list-style-type: none"> 1. Herri-bilera edo foroak bultzatu udaletan. 2. Eskoletan partehartzearen inguruko ekintzak, jokuak eta informazioa bultzatu. 3. 2008an Goierriko herri bakoitzak bere herrian ekimen bat partehartze bidez garatzeko konpromezua har dezala. Ekimen hauek ondoren publiko egin.

	<p>ESKUALDEKO AGENDA 21</p> <p>INGURUMEN LAN-TALDEA</p> <p>2007/11/21 Arratsaldeko 15.30-17.30</p>	
---	---	---

URA

1. Udalekin bilera bat egin eta Ekoscanak bideratu.
2. Enpresetan Ekoscanak bideratzen saiatu.
3. Eskolako Agenda 21eko gaia Ura dela aprobetxatuz, txorrota murrizteko tapoiak eskolumeen artean banatu.
4. Aste Berdean uraren gaia landu Goierri mailan :
 - Hitzaldiak
 - Erakusketak
 - Pegatinak aholkuekin
 - Komuneko zisternan sartzeko poltsak banatu
 - Erreka garbiketak

NATUR BALIABIDEAK ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA

1. Baserrietako bizi baldintzak eta errentagarritasuna hobetu.
2. Auzolana, hiritarren aldetik baserrian parte hartzea bilatu.
3. Paisaia, kultur ondare den heinean, identitate ezaugarria denez, beste figurak eta mantenturako gogoetak praktikan jarri, konpentsazio sozialak, diskriminazio positiboa aplikatuaz eta Udaletxeetan partaidetza aktiboagoa bultzatuaz.
4. Goierriko baliabide naturalistiko aipagarrienen inbentarioa egin, eskala ezberdinetan: habitat, nitxo ekologiko, biotopo, erretserba integral, etab.
5. Hauek babestera begira figura legalak erabili: inguruan ematen diren jardueren erregulazio batekin.
6. gizarteratzea, ezagutza bultzatuz, gizarte eskaera bilakatu dadin.

Guztion ekarpenei eskualde mailan ingurumen arloan burutu daitezkeen hainbat ekintza zehatz jasoz lan polita egin dugu!!! **MILESKER!!!**

Hemendik aurrera, zer?

Proposaturiko ekintza guzti hauek Goierriko hainbat udaletako ordezkariak osatzen duten Ingurumen Batzordeari aurkeztuko zaizkio. Batzorde honek 2008an zein ekintza burutu erabakiko du. Guztioi emango zaizue erabaki honen berri.

Eskerrikasko eta ondo segi! Datorren bileran ikusiko dugu elkar!

	<p>Eskualdeko Agenda 21</p> <p>4 / 4</p>	
--	---	--